

URTEKO HOGEITA BOSGARREN IGANDEA B

Lehen irakurgaia

(*Gaixtoak zuzena hil nahiz dabilta*)

Zuhurtzia liburutik

2, 12. 17-20

Gaizkia asmatzen dutenek beren baitan erran dute:

- 12 “ **Heda ditzogun sareak zintzoari, aspergarri baitzaiku:
gure bizimoldearen kontra dago,
gure lege-haustek aurpegirat botatzen dauzkigu,
eta gure ohiduren kontrako hutsak salatzen.**
- 17 **Ikus dezagun erraiten duena egia den ala ez,
iker dezagun nola bururatuko den.**
- 18 **Zintzoa Jainkoaren seme balinbada,
Jainkoa etorriko zaio laguntzera,
eta etsaien eskuetarik libratuko du.**
- 19 **Laidoak eta oinazeak jasanaraz ditzogun;
haren goxotasuna ezagutuko dugu eta pazientzia neurtuko.**
- 20 **Kondena dezagun heriotze lotsagarrira,
erran duenaz geroz zaintzailea baduela.**

Zuhurtzia, Bibliako azken liburua da, berezia, Egiptoan izkiriaturia grekoz eta ez hebrearrez 30 edo 50 urte Jesu Kristo aitzin.

Alezandro Handiaren guduen ondotik, 330 irian J. K. aitzin, judu batzu bizitera joan ziren Egiptorat, Alezandria hirirat. Han mintzaira grekoa zelakotz, laster juduek beren hizkuntza galdu zuten. Hortakotz Biblia grekorat itzulia izan zen.

Alezandria hirian, zombait judu leial egon ziren arbasoen erlisioneari, baina ez zen pentsa dezakegun bezain errex : juduak grekoen erdian bizi ziren, eta bi erlisioneak osoki desberdinak. Judu batek, orai erraiten dugun bezala, integratzekotz behar zituen bazterrerat utzi bere ohidurak, hautatu behar zuen: edo urrun egoitea juduen erkidegotik eta irriskuak hartzea, edo bat egitea greko erlisionearekin. Juduek eztabada frango ukan zuten elgarren artean.

Gatazka horien erdian leial egoitea neke zen, zeren erlisionekeo aharrak beti zorrotzak baitira. Beraz zer gertatu zen orduan? Leial egon zirenak hertsatuak izan ziren, ez grekoetaz, baina beren anaieiaz, zeren hauek ez baitzuten konzientzia lasai beren erlisioneak utzirik.

Egungo idatzi hunek, egoera hori kondatzen dauku. Nehork ez daki nork izkiriaturia izan den Zuhurtzia liburua, ez baita sinatua, baina segur da fededun batek egin dela, anaieri kuraria emaitako, eta erraiteko beharko dutela hautu bat egin : leialtasuna nekea da eta kontra diren erakaspeneri iharduki beharko dute: « *Gaizkia asmatzen dutenek beren baitan erran dute : « Heda ditzogun sareak zintzoari, aspergarri baitzaiku: gure bizimoldearen kontra dago, gure lege-haustek aurpegirat botatzen dauzkigu, eta gure ohiduren kontrako hutsak salatzen.* »

Fededun batek, zer egiten ahal du anaiek hertsatzen dutelarik ? Fedeari bermatu, erranez: « *Jainkoak ez nau bazterrerat utziko, ene Aita da eta ez nau utziko.* » Konfiantza hori aurpegirat botatzen diote hertsatzaileek, erranez handinahiak direla : « *Ikus dezagun erraiten duena egia den ala ez, iker dezagun nola bururatuko den. Zintzoa Jainkoaren seme balinbada, Jainkoa etorriko zaio laguntzera eta etsaien eskuetarik libratuko du. Laidoak eta oinazeak jasanaraz ditzogun; haren goxotasuna ezagutuko dugu eta pazientzia neurtuko. Kondena dezagun heriotze lotsagarrira, erran duenaz geroz zaintzailea baduela.* »

Berehala Jesusi pentsatzen dugu; haren jokabideak nardatzen zituen juduen buruzagiak, erakaspenera emaita zelakotz. Kaifek erran zioten:« *Hobe duzue gizon bakar bat herriarentzat hil*

dadin, herri osoa sunsitua izan baino? » Bainan Zuhurtzia liburua ez da Jesusez mintzo : bere garaikideeri kuraia emaita du helburu.

Zuhurtzia liburuaren irakurleek badakite Jainkoak ez dituela profetak beren ber utzi, ez duela ere bide bazterrean uzten ahal leial egoiten zaion fededuna: « *Justuen arimak Jainkoaren eskutan daude, oinaze batek ere ez ditu hunkiko.* » Atxik ! egiazko zuhurtzia leial egoitea baita.

Salmoa 53

**Leloa: Zatozkit laster, otoi, Jauna!
 Zu zaitut lagun, zu laguntza!**

**Nere Jainkoa, zure izenaz eman indar,
 Zure argiaz beirale jar.
Otoi, Jainkoa, nere otoitza gogotik har:
 Deiak ditela zu baitan sar.**

**Buru harroak oldartu zaizkit tzarki neri,
 Bizia kendu nahiz ari.
Heien begiak ez daude beha Jainkoari:
 Herra daukate jan-edari.**

**Huna Jainkoa, lagun heldu zait, neri beha:
 Zer biziaren zaintzalea.
Eginen ditut kantuz eskaintzak zuri, Jauna:
 Zure izena baita ona.**

Salmo hunen titulueterik bat hau da : « *Zifdarrak, David heien artean gordea zela, Sauli erraitera joan zirenekoa.* » David kinka txarrean zen. Saulek, lehenik bere semea bezala artatu zuen, bainan emeki emeki bekaizgo izigarrian sartu zen : David gazteak denetan errekesta handia zuelakotz, Saul, bekaizgoz, etsai bilakatu zitzaion. David, Saulen gortetik eskapatu izan zen ainitz aldiz urrun gordetzeko, bainan beti bazen norbeit erregeari salatzeko. Salmoko gertakari huntan, David Judako mendietan gordea da eta hango jendeek salatzen dute Saul erregeari. Jainkoak ez badu laguntzen, David galdua da. Pentsa daiteke, Davidek, hertsatua zelakotz, oihu egin ziola Jainkoari Salmo hunen iduriko otoitz batean, bainan badaki Jainkoa jinen zaiola sostengu emaitera, leial egon delakotz.

Ez da frogatua Daviden ahotik aterara dela salmo hunen oihua, bainan, segurrenik populu guziaren oihua da, Daviden egoera berean ainitz aldiz gertatu delakotz. Hala nola, desterratua izan zelarik, populuak uste ukan zuen sunsitua izanen zela osoki, bainan orduan are gehiago oihu egin zuen, erranez : « *Nere Jainkoa, zure izenaz eman indar, zure argiaz beirale jar.* » « *Zure izenaz eman indar* » : Sinai mendian, Jainkoak populuari ezagutarazi zion bere izena. Jainkoak zuen hautatu herri ttipi hori, harek igorri Mois libratzera eta bere Elkargoaren proposatzera.

Davidek ez zuen deus galdegin, Jainkoak zuen igorri Natan profeta, Jezeren seme guzien artean David hauta zezan. Igorri zuen gero Saulen gorterat, presta zadin errege izaiteko. Davidek berak ez zuen sekula horri pentsatuko. Hortakotz zuen dei egin Jainkoaren indarrari : « *Zure izenaz eman indar.* »

Salmo huntako bigarren zatia esker onezko otoitza da. Fededunak badaki aditua izanen dela, zeren Jesusek, bere otoitzean, erran baitzion Aitari:« *Badakit beti aditzen nauzula* » Orduan Salmo egileak, izan dadin David, ala izan dadin Izrael herria, esker onezko ospakizuna egin aitzin erraiten du:« *Eginen ditut kantuz eskaintzak zuri, Jauna.*»

Bigarren irakurgaia

(*Nondik diren bakea eta gerla*)

Jondoni Jakoberen epixtolatik

3,16 – 4,3

- Haurrideak,**
- 16 **beaizkeria eta norgehiagokeria diren tokian,
han dira nahasmendua eta gaixtakeria mota guziak.**
- 17 **Gain hartarik heldu den zuhurtzia, aldiz, garbia da lehenik;
gainera, baketsua, ezitia, amor-emailea,
urrikalmenduz eta egitate onez betea,
alderdikeria eta zurikeriarik gabea.**
- 18 **Bakegileek bakean ereiten dute eta fruitutzat zuzentasuna biltzen.**
- 4,1 **Nondik dira zuen artean dituzuen gerla eta kalapitak?
Ez ote zuen baitan borrokan ari diren jaidura tzarretarik?**
- 2 **Zerbaiten gutizia izanki eta hura ezin eskura,
orduan hiltzen duzue;
zerbait nahi eta ezin ardiets duzuenen,
kalapita sortu eta borroka egiten duzue.**
- 3 **Ez duzue ukaiten, eskatzen ez duzelakotz;
eskatzen duzue eta deus ez ukaiten,
gaizki eskatzen duzelakotz, zuen jaidura tzarren asetzeko.**

Bibliak, ardura, bi bide erakusten dauzkigu, alde batetik : bekaizkeria, gerlak, etsaigoak, norgehiagokeriak ; beste aldetik : justizia, bakea, jasankortasuna. Bi bizi molde horiek elgarren kontrakoak dira. Gorago Jakobek aipu du lurreko zuhurtzia, jende mailakoa, debruaren ganikakoa. Hemen Jakobe beste zuhurtzia batez ari da, Jainkoaren ganik heldu denaz. Hori erraitean nor begistatzen du ? Jakobek ez dauku nehor izendatzen, zeren jokabide horientzat nor nahi gai baita.

Aitzineko igande horietan Jakobe mintzatu da aberatsen eta pobreen arteko gatasketaz. Besteak beste, horra zer idazten zuen mihiaren botereaz : « *Mihia membro ttipia izanik ere, duen ahal handiaz harro izan daiteke...Haren bidez benedikatzen dugu gure Jauna ta Aita, haren bidez ere madarikatzen jendea, Jainkoaren idurirat egina. Aho beretik ateratzen dira benedikatzea eta madarikatzea. Haurrideak ez da holakorik behar.* » Urruntxago erraiten du ahoan bilorik gabe : « *Baina, bekaizkeriaz eta norgehiagokeriaz beterik bazirezte, ez urgulutan sar eta egia ez denik ez erran.* » Irriskua ez zitaken ametsetakoa, gutuna hitz hotaz hasten baitu: « *Norbaitek bere burua erlisionekoa baldin badauka, bainan mihiari arrastarik ezarri gabe...haren erlisioneak deusik ez du balio.* »

Jakobentzat, jeloskeria eta norgehiagokeria paganoenak dira; aldiz egiazko erlisioneak, judu ala girixtino, arrunt beste bizi molde baterat geramatza. Egia bera, hala nola urostatasuna, paganoak ez du girixtino batek bezala biziko. Bixtan dena, urostatasuna ez da paganoa edo girixtinoa, bainan urostatasuna bi moldetara bizi daiteke : Judu erlisioneak eta bereziki girixtinotasunak anaitasunezko amodioan sarrarazten gaitu.

Jainkoak Abrahami erran lehen solasa zen, zoriona ez duela lurreko aberastasunak emaiten. Zorionaren desiratzea ongi da, bakarrik behar dugu ikasi Jainkoa baitan, beti, konfiantza ukaiten, erran behar ginuke: « *Jaunak nahi badu biziko gira eta hau edo hura eginen dugu.* »

« *Jaunak nahi badu.* » Hauk, Jakobek hitzak dira, Jesusenen idurikoak: « *Zure nahia egina izan dadila eta ez enea* ». Jakobek erraiten dauku egiazko kalapitak gure bihotzean direla eta bestekin ditugunak, heien ondorioak. « *Nondik heldu dira zuen artean dituzuen gerla eta kalapitak? Ez ote zuen baitan borrokan ari diren jaidura tzarretarik ?* »

Segetua otoitzean da, Jainkoak bakarrik emaiten ahal baitaiku zuhurtzia. Bibliak beti eta beti hori errepikatzen dauku, Jakobek gutun huntan kontseilua emaiten duen bezala : «*Zuetarik bat zuhurtzia beharretan bada, eska diezola Jainkoari eta emanen dio, nasaiki eta erasiatu gabe emaiten baitu.* »

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia

**Berri Onaren bidez Jainkoak deitzen gaitu
Jesu Kristo gure Jaunaren aintzan parte hartzera.**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik 9, 30-37

- 30** Jesus Galilean barna zoan bere dizipuluekin,
eta ez zuen nahi nehork jakin zezan.
- 31** Heieri irakasten ari baitzen, erranez:
“ Gizonaren Semea gizonen eskuetarar emanen dute;
hilen dute, hil eta hiru egunen buruan piztuko da.”
- 32** Bainan heiek solas horiek ez zituzten konprenitzen,
eta argitasunak eskatzeko beldur ziren.
- 33** Kafarnaumerat etorri ziren,
eta etxean, Jesusek galdegin zioten:
“ Zertaz ari zinezten bidean?”
- 34** Heiek ixilik zauden,
beren artean handiena nor ote zen ari izan baitziren bidean.
- 35** Jarri zen Jesus, Hamabieri dei egin eta erran zioten:
“ Lehena izan nahi duena
izan bedi denetan azkena eta denen zerbitzaria.”
- 36** Gero haur bat hartu zuen, heien erdian ezarri,
besarkatu eta erran zioten:
- 37** “ Holako haur bati neregatik ongi etorri egiten dionak,
neri daut egiten;
eta ongi etorri egiten dautanak,
ezdaut neri egiten, bainan ni igorri nauenari.”

«*Bainan heiek solas horiek ez zituzten konprenitzen, eta argitasunak eskatzeko beldur ziren...* » Dizipuluak arras ongi konprenitzen ditugu. Solas berak erabili zituen Jesusek, Petrik, Zesarea hirian bere fede-aitormena egin zuelarrik. Bainan dizipuluengatzat, Jesusen hitzak ez ziren beti konpreni errexak. Ezin sinetsiak ere izan zitezkeen. Zendako? Jainkoaz eta gizonaren Semeaz zituzten ideiak arrunt bestelakoak baitzituzten. Bereziki Jesus itxuraldatua ikusi zutenek, Petri, Jakobe eta Joanik, nolaz sinets zezaketen Jesusek sofritu behar zuela?

Itxuraldatzearen lekuko izan ez zirenek ere entzun zuten Petriren fede-aitormena : «*Zu zira Mesias*», erran nahi baita zu zira populuaaren salbatzailea. Orduan, Jesusek ez zion eman erreposturik, bainan ageri zen ados zela haren hitzekin. Halere deneri manatu zioten nehoi ez holakorik erraiteko.

“Seme maitea”, “Jainkoak hautatua”, “Mesias”, “beha ginauden erregea”, “Gizonaren Semea” deitu berria izana zen Jesus. Daniel profetak izkiriaria zuen, Gizonaren Semea gizadiaren buruzagia izanen zela. Eta orai, Jesusek erraiten du sofrikarioa eta herra jasan beharko dituela : hitz batez kurutzea. Dizipuluaren buruan ospea eta kurutzea ez dira elgarrekilakoak.

Beste itxuragabekeria bat : gizadiaren buruzagi izan behar dena, ondarkin bat bezala tratatua izanen da, gero piztuko da eta denetaz nausituko. Azkena lehena izanen da. Ospea kurutzeari datxiko; gehiago oraino : ospea kurutzetik pasatzen da. Iduri du mundua binperraz dela. Ez da harrizko dizipuluek ez badute ulertzen. Berantxago dizipuluek ulertu zuten Kristok *behar zuela* hola egin, Aita ospatzekotz, erran nahi baita bere amodioa guri erakustekotz.

Hitz durduzatu horien ondotik, dizipuluak solasean hasi ziren, jakiteko heien artean nor ote zen handiena. Jesus ez da kexatzen eta erran diote nola behar den egin lehena izaiteko : « *Lehena izan nahi duena izan bedi denetan azkena eta denen zerbitzaria.* » Solas berak irakurtzen ditugu, Pasiene denboran, Markek erraiten duelarik: « *Zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari. Eta zuen artean lehen izan nahi duena izan bedi guzien mutil. Zeren Gizonaren Semea ez baita etorri zerbitzatua izaitera, zerbitzatera bai...* » Hitz horiek oroitarazten daukute Joanik bere Ebanjelioan kondatzen duena : nola Jesusek dizipuluen zangoak garbitu zituen, eta gauza bera egiteko artamendatu.

Hemen, denek konprenditzeko gisako etsenplu bat emaiten du Jesusek. Hartzen du haur bat, ezartzen dizipuluen erdian, musu emaiten dio, nahiz-eta Jesusen denboran haurra esdeus bat zen, eta haurrari musu emaiterekin, musu emaiten dio ber gisan ttipitasunari. Gero erran zioten : « *Holako haur bati neregatik ongi etorri egiten dionak, neri daut egiten...* » Matiuren Ebanjelioan, azken jujamendua aipatzen duelarik hitz berak erraiten ditu : « *Nere haurrideak diren ttipien hauetarik bati egin diozun aldi guziz neri egin dautazue.* » Jesusek argitzen du erranez : « *Egiten baduzue ene izenean.* » Ez dira baitezpada gure obrak handiak, bainan handiak izanen dira Jesusen izenean egiten baditugu. Berri ona denentzat, hori gure menean baita.